

GAIA: IKASLEENTZAKO ISTRIPU ASEGURUA / 2012-2013 IKASTURTEA

BAIKARA Federazioak ikasleentzako istripu aseguru bat egiteko aukera eskaintzen die bere bazkide diren Gipuzkoako ikastetxe guztiei; istripua duten ikasleen osasun laguntza estaltzen du aseguru horrek, nagusiki.

Arrazoi ekonomikoagatik aurten Aseguru Konpania aldatu dugu eta **MUTUA GENERAL DE SEGUROS** Konpaniarekin egin dugu aseguru. Hauek dira aseguruaren ezaugarri nagusiak

BERMEAK:

- Istripuz gertaturiko heriotza: 1.502,53 €
- Istripu batek eragindako elbarritasun oso iraunkorra: 12.020,24 €
- Istripu batek eragindako elbarritasun partziala: 12.020,24 €
- Elbarritasun larria: 18.030,36 €
- Osasun laguntza: mugarik gabekoa

NOIZ GERTATUA:

Istripuak: ikastetxeetako ohiko ekintzetan, eskolarrak eta eskolaz kanpokokoak ikastetxeak edo Guraso Elkarteak antolatutak izanez gero:

- Eskola orduetan / Eskola-ordutegiz kanpoko ekintzetan / Bisitaldi, txangoak / Kirol Lehiaketetan, eskola kirola / Etxetik eskolara "in itinere" / Udalekuetan eta "zaintza" geletan

MUGARIK GABEKO OSASUN LAGUNTZA (urte bete)

- Eskola Aseguruan aritutako larrialdietarako zerbitzu medikoa
- Klinikak, ospitaleak, odontologoak, oftalmologoak, pediatriak, traumatologoak, errehabilitazioa, medikuntza-probak eta abar. Zerbitzu mediku kontzertatuaren ikuskapenean eta **inoiz ez zentro publikoetan**.

ODONTOLOGIA:

- Sendaketak, ateratzeak edota berregiteak 601,01 € arte.

BETAURREKOAK:

- 150,00 € arte, istripua gertatzen denean osasun laguntza gertatuz gero.

ARRETA ARITUA ETA PREMIAZKOA

Istripu bat izatekotan larrialdietarako osasun zerbitzu bat eskaintzen da. Ikastetxeetan aditua den medikua ahalik eta lasterren joango da ikastetxera diagnostiko bat ematera. Medikua ardurapean eta beharrezko neurriak jarraituz ikaslea klinika, ospitale edo espezialista batera bideratuko da. Espezialistak familiari diagnostikoa, tratamendua eta gomendioak azalduko dizkio.

2012-13 ikasturterako istripu aseguru honen kostua ikasleko 12,90 eurokoa izango da.